

Hiroshimako izu handia

Deia, 1983-08-09.

Bete berriak ditu hil honen 6an 38 urte Hiroshimako izuak.

Lehenengo hamar minutuetan 100.000 japoniar erreta hilik utzi eta beste 100.000 erreta zeudenik ohartu ere ez ziren arren, betirako suak ikutuak zeuden. Bat batean, hil ziren haiek zoriontsuen, izuaz handik gelditu bai ziren, eta salbatu zirela uste zuten beste hauek izuaren barrutietan geratu sei hilabete luzeko agonian.

Harrez gero, arrisku honetaz jabetu den gizakeria, orduantzekoa eta ondoren mundu honetan jaiotzen joan den guztia, izu honen arrakarekin biziko gara hil arte.

Ohitzen ere hasiak gara dagoeneko!

Madarikazioa bere eskuz piztu zuen pertsona, Robert Lewis, hil berria da 65 urte zituelarik, ohean, eta ez damaturik, ez baitzuen berari zegokion errurik sumatzen; egin behar zuena egin zuelako. Izar Zuria duen domina jaso ere egin zuen eta, ea! Honen lankide izan zen Paul Tibetts, pilotoak ere ez du egin zuenaren errurik sentitzen; bizi da oraindik gauza bera esateko.

Eta egia da, ezin ditugu ezertaz kulpatu.

Bi gizon horiek bazekiten bonba handi bat zeramakitela; hala ere, ez zuten inoiz pentsa *honenbestekoa* izan zitekeenik; eta, egia esan, non dago frentean tiroz arerio bat hiltzetik egazkinetik botatuko bonbaz 200.000 pertsona akabatze arteko erruduntasun izkutu honen muga?! Bestalde, bi gizon horiek "soldaduak" ziren, agindutakoa egiteko irakatsiak, zina hautsi ezin duten *robot* itsu horietakoak. Eta, oraindik gehiago, ehunka mila pertsona hil edo elbarritu zituen arren, ehunkada milen pertsonen bizia salbatu zituen ordurako sei urteko Mundu Gerrak hilak miloika kontatzen hasia bait zen aspaldi izu honen aita edo ama; biak noski.

Eskerrak eman genizkion guk ere izu handi horrerri eta piztu zutenei ere!

Gezurra dirudi 38 urte gero hemendik begiratua hau ala izatea, baina egia da; bestela ikusi zuten, noski, Nazismoak eta Faszismoak aurretik Gernikako sua piztu eta gero Mundu Gerra hasi zutenen lagun eta gaizkide zirenak!

Guk ere izan genituen Hiroshimakoek bezain errugabe izan ziren hilak.

Baina ez dugu gaurko ikuspuntua Hiroshimatik gehiegi atera nahi; hemendik atera gabe ere bazen Japonian orain dela 38 urte bonba horren lekukotasuna utzi digun euskaldunik.

Honi begira jarriko natzaio biharko nire ikuspuntutik.